


EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN X ALDIZKARIA



BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Zk-7429

317/2002 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketak babestuei buruzkoa.

1983ko abenduan Eusko Jaurlaritzak ondare urbanizatu eta eraikiaren birgaitzeari buruzko lehen Dekretua onartu zuenetik, gure hiri-areak zein landa-areak berriz kualifikatzeko egindako ahaleginak gora egin du 1990, 1996 eta 2000ko maila bereko hurrenez hurreneko xedapenek eta herritarrek aldi berean agertu duten gero eta konpromiso handiagoak bultzatuta. Izan ere, herritarrek multzo eta eraikin asko leheneratzeko hain beharrezkoa eta begi-bistakoa den jarduketan lagundu dute eta beren baliabideekin osatu dute.

Jasangarritasuna bezalako printzipio unibertsalak oso garrantzitsuak dira gero eta urriagoa den lurzoru eskuragarriaren kontsumo handiaren aurrean egun dagoen higiezinaren parkea berrerabiltzeko aukerari dagokionez. Hori guztia euskal erakundeek azken urteotan garatu dituzten eta orain, lerro hauek azaldu nahi duten Dekretuaren bitartez, indar eta ezagutza handiagoarekin tinkotu eta proiektatzen diren birgaitze eta berrikuntza politiken bitartez lor daiteke.

Oro har eta 2003-2005eko Etxebizitza Plan Zuzentzailean bildutako jarduketak-jarraibideen arabera, ondokoa aldarrikatzen da: eraikin eta etxebizitza okupatuen birgaitzeari bultzada tinkoa ematea, alokairuan jartzeko etxebizitza hutsen birgaitzea sustatzea, hiri-be-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

Nº-7429

Proyecto de Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

Desde que en diciembre de 1983 se aprobara por el Gobierno Vasco el primer Decreto sobre rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado, el decidido esfuerzo para la recualificación tanto de nuestras áreas urbanas como de las rurales, ha seguido un progresivo aumento auspiciado por las sucesivas disposiciones del mismo rango de 1990, 1996 y 2000, y el también ascendente y simultáneo compromiso de la ciudadanía que ha apoyado y complementado con sus recursos, una actuación tan necesaria como ya visible, de la recuperación de muchos conjuntos y edificaciones.

Modernos principios universales como el de la sostenibilidad, alcanzan un lugar destacado en la potenciación de la reutilización del parque inmueble existente sobre el creciente consumo del cada vez más escaso suelo disponible. Y ello resulta posible a través de políticas de rehabilitación y renovación como las llevadas a cabo por las instituciones vascas a lo largo de los últimos años y que ahora se apuntalan y proyectan con más vigor y conocimiento, si cabe, a través del Decreto de cuya exposición versan estas líneas.

En términos generales, y siguiendo las pautas de actuación contenidas en el Plan Director de Vivienda 2003-2005, se propugna un decidido impulso de la rehabilitación de edificios y viviendas ocupadas; el fomento de la rehabilitación de viviendas vacías para su pues-

rrikuntza orokorra eta, horrez gain, berrurbanizazioari eta ekipamenduen eta espazio publikoen zuzkidurari bultzada handia ematea, gure eguneroko bizitzaren inguruko habitata hobetzeko parametropetan. Eta, hori guztia, landa-eremua ahaztu gabe; bertan egingo diren esku-hartzeek despokatze-prozesuei aurre egiteko baldintza egokiak bilatuko dituzte.

Lerro nagusi hauek guztiak Dekretu honetan egituratuta daude. Dekretuaren abiapuntua (I. kapitulua) birgaitze-jarduketatzat hartu behar denaren inguruko alde aurreko definizioek osatzen dute. Ondoren jarduketak babestuak edo sustatuak aztertzen dira eta, horien artean, besteak beste, lokalak etxebizitza bihurtzea, alokairu babestuan jartzeko etxebizitza birgaitzea edota Ja-been Erkidegoei elementu komun birgaitzerako zuzeneko laguntza emateko aukera azpimarratu behar dira.

«Birgaitze Integratuko Areen eta Area Degradatuen erregimen juridikoan» (II. kapitulua) malguagoak dira Area Degradatuak kalifikatzeko eta birgaitze integratuaren onurak eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak. Halaber, aipatu beharra dago birgaitze-arloko profesionalek eta langileek behin eta berriz egindako eskaera bat sartu dela, hau da, birgaitze-plan bereziaren diseinu-arauen lehenetsuna, babes ofizialeko etxebizitzaren araudi teknikoan bildutako arauekin alderatuta.

Azkenik, eta arau gehienak II. kapituluan barne hartuta badaude ere, une honetan azpimarratu beharra dago (Dekretu honen bigarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspenaren harira) udalek, birgaitzeko hiritzinta-sozietateen bitartez, bizilagunekiko bitartekaritza duten garrantzi nabarmena —orain berresten dena— eta ondare eraikia eta bere ingurune urbanizatu eta ekipatua birgaitzeko politiken eguneroko kudeaketan duten lidergoa.

Horri jarraiki, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak alde aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren, abenduaren 30ean egindako bilkuran

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Xedea.

1. Dekretu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketan, hiri nahiz landa ingurunekoen, erregimen juridikoa arautzea da, etxebizitzaren sektorea sustatzeko eta indartzeko helburuarekin, batez ere hiritzinta-intereseko eremuetan.

ta en arrendamiento; la renovación urbana en su conjunto, con la novedosa adición de un fuerte empuje a la reurbanización y a la dotación de equipamientos y espacios públicos bajo el parámetro de la mejora del hábitat que rodea nuestra vida cotidiana, y, todo ello, sin olvidar al ámbito rural en cuyo seno las intervenciones buscarán con ahínco las condiciones adecuadas para frenar los procesos de despoblamiento.

Todas estas líneas maestras se articulan en este Decreto que parte (capítulo I) de las necesarias definiciones previas en torno a lo que ha de considerarse como actuaciones de rehabilitación para seguir con la enumeración de las protegidas o fomentadas entre las que destacan, entre otras, la conversión de locales en viviendas, la rehabilitación de vivienda para su puesta en arrendamiento protegido o, incluso, la posibilidad de apoyo directo a las Comunidades de Propietarios para la rehabilitación de elementos comunes.

En el «régimen jurídico de las Áreas de Rehabilitación Integrada y Áreas Degradadas» (capítulo II), se flexibilizan las condiciones o requisitos necesarios para la calificación de las Áreas Degradadas y su acceso a los beneficios de la rehabilitación integrada, cabiendo también reseñarse la introducción de una reiterada petición de los profesionales y operadores de la rehabilitación cual es el de la preeminencia de las normas de diseño del propio plan especial de rehabilitación sobre las contenidas en la normativa técnica de las viviendas de protección oficial.

Por último, y aunque el grueso de su regulación viene contemplada en el capítulo II, procede subrayar en este lugar (al hilo de la previsión contenida en la disposición adicional segunda de este Decreto), la importancia destacada, y que ahora se reafirma, de los ayuntamientos, a través de sus sociedades urbanísticas de rehabilitación, en la intermediación con los vecinos y el liderazgo en la gestión diaria de las políticas de rehabilitación del patrimonio edificado y su entorno urbanizado y equipado.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 30 de diciembre.

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto.

1. Es objeto del presente Decreto regular el régimen jurídico de las actuaciones de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado radicado en la Comunidad Autónoma del País Vasco, tanto en el medio urbano como en el rural, al objeto de promocionar y fomentar el sector de la vivienda principalmente en áreas de interés urbanístico.

2. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren erabakiaren bidez zehaztuko dira birgaitze-jarduketak hiri-urbanizazioaren neurriak, nahiz irisgarritasunerako planak garatzeko dirulaguntzak arautzea eta, hobekuntza-lanak burutu eta hiri-inguruan eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko ekipamendua erostea, bai eta berrurbanizazio eta eraikuntzarako Area Degradatuetako laguntzak ere.

2. artikulua.– Birgaitzeko jarduketak.

Birgaitzeko jarduketak izango dira ondare urbanizatu eta eraikiari dagokion balioa ematea eta horrek erabilera egokiago izatea lortzeko egindako esku-hartzea edo esku-hartzeak.

Birgaitzeko jarduketak osatzen dituzten esku-hartzeak eta horiek birgaitze-plan berezien idazketan izango duten erabilera ezartzeko, dekretu honen I. eranskinean biltzen diren definizioen koadroa hartuko da aintzat.

3. artikulua.– Birgaitzeko jarduketaren eremua.

1.– Birgaitzeko jarduketek honako helburuetako bat edo batzuk izan ditzakete:

- a) Eraikuntza-unitateak hirigintzara moldatzea.
- b) Eraikuntzen egitura edo/eta eraikuntza moldatzea.
- c) Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak moldatzea.
- d) Eraikinen era etxebizitzaren elementu komun edo pribatiboen akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara moldatzea.

e) Etxebizitzak eta lokalak eta horietarako sarbideak minusbalioetatik kanpo izan daitezkeen egokitzea.

2. Eraikuntza-unitate bat edo eraikuntza bat hirigintzara moldatutakoa dela esango dugu ondorengo bi egoeretakoren batean dagoenean:

– indarrean dagoen lurzuaren legeriari jarraiki antolamendutik kanpo ez dagoenean edo indarrean dagoen plangintzaren arabera lagapenen bati lotutakoa ez denean eta, horrenbestez, ez denean beharrezkoa horren zati bat edo osorik erraustea lehen mailako ekipamendu komunitarioak, plazak, parke publikoak, berdeguneak egiteko edo trafikoa eratzeko edo oinezkoentzako bideak, hirigintza-plangintzan definitutakoak, irekitzeko.

– oin berriko eraikuntza bat egiteko ordenantza betetzen ez badu ere, plangintzak, bere helburuekin bateragarri ez delako, osorik edo zati bat, erraustu beharreko eraikuntzatzat jo ez duenean.

2. Mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se determinarán las medidas financieras de dichas actuaciones de rehabilitación, así como la regulación de las subvenciones para la elaboración de planes de accesibilidad y ejecución de obras de mejora y adquisición de equipamiento para garantizar la accesibilidad en el entorno urbano y las edificaciones, y las ayudas en Áreas Degradadas para reurbanización y edificación.

Artículo 2.– Actuaciones de rehabilitación.

Serán actuaciones de rehabilitación las constituidas por una o varias intervenciones sobre el patrimonio urbanizado y edificado al objeto de conseguir su puesta en valor y su más adecuada utilización.

A efectos de definir las diferentes intervenciones que constituyen las actuaciones de rehabilitación y de su utilización en la redacción de los Planes Especiales de Rehabilitación, será tenido en cuenta el cuadro de definiciones que se recoge como Anexo I del presente Decreto.

Artículo 3.– Ámbito de las actuaciones de rehabilitación.

1.– Las actuaciones de rehabilitación podrán perseguir uno o varios de los siguientes objetivos:

- a) La adecuación urbanística de las unidades edificatorias.
- b) La adecuación estructural y/o constructiva de los edificios.
- c) La adecuación de las condiciones de habitabilidad de las viviendas.
- d) La adecuación del acabado general de los elementos comunes y/o privativos de los edificios y de las viviendas y locales a los principios de la buena construcción.
- e) La adecuación de las viviendas y locales y sus accesos por personas con minusvalías.

2. Se considera que una unidad edificatoria o una construcción está adecuada urbanísticamente cuando se encuentre en alguna de las dos situaciones siguientes:

– no está fuera de ordenación según la vigente legislación del suelo ni sujeta a cesión alguna por imperativo del planeamiento vigente, no siendo preciso por ello su derribo total o parcial para realizar equipamientos comunitarios primarios, plazas, parques públicos, zonas verdes, o para la apertura o ampliación de vías de tráfico o peatonales, definidos por el planeamiento urbanístico

– aún sin cumplir con la ordenanza para realizar una construcción de nueva planta, no haya sido declarada por aquel planeamiento como construcción a demoler, total o parcialmente, por ser incompatible con sus objetivos.

Hirigintzara moldatzeko ezinbesteko obrak Dekretu honen II. eranskinean bildu ditugu.

3. Eraikuntzak egitura egokia duela esango dugu eraikuntza-segurtasunari dagokionez baldintza nahikoak betetzen dituenean, eraikinaren egonkortasuna, erresistentzia, irmotasuna eta sendotasuna bermatzeko moduan.

Eraikin batek eraikuntza-egokitasuna duela esango dugu, eraikuntza onaren printzipioei jarraiki, gutxieneko baldintzak betetzen dituenean ondoren adierazitako alderdiei dagokienez: sarbideak, uraren eta hezetasunaren estankotasuna, isolamendu termikoa, uraren sare orokorrak, saneamendua, elektrizitatea, istripu eta ezbeharretako segurtasuna eta, hala badagokio, telefoniako sare orokorrak eta igogailua egoki instalatua egotea.

Egiturari eta eraikuntzari dagokienez egoki izateko baldintza orokorrak eta egoera horietara iristeko obrak Dekretu honetako III. eranskinean bildu ditugu eta Eraikuntzaren Ordenamendurako azaroaren 5eko 38/99 Legearen 3. artikuluan.

4. Etxebizitza batek bizigarritasun-baldintzak betetzen dituela esango dugu etxebizitza hori egiturari eta eraikuntzari dagokienez egokia den eraikin batean dagoenean eta etxebizitza horrek, gainera, gutxieneko baldintzak betetzen dituenean ondoren aipatutako alderdiei gagozkiola: azalera erabilgarria, barne-banaketa, aireztapena, argi naturala eta aireberritzea, uraren eta saneamenduaren instalazioa, elektrizitatea, isolamendu termikoa eta akustikoa, berokuntza edo gas naturaleko instalazioa, zerbitzu higienikoak eta sukaldeko oinarrizko instalazioak.

Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak eta egoera horretara iristeko obrak Dekretu honetako IV. eranskinean daude, bai eta Eraikuntzaren Ordenamendurako azaroaren 5eko 38/99 Legearen 3. artikuluan ere.

5. Eraikin baten eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzen dela esango dugu, eraikina egiturari eta eraikuntzari dagokienez egokia denean eta etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak bete eta elementu komunetan eta pribatiboetan obrak egiterakoan akabera nagusia aipatutako eraikuntza onaren printzipio horietara egokitzeko moduan egin direnean. Atal honetan hartuko dira barne eraikineta-ko elementu komunak akabera orokorreko obrak, baita etxebizitzetako eta lokaletako elementu pribatiboak ere, besteak beste, zarpeatua, alikatatua, zolatua, arotzeria, pintura eta bestelakoak, dagokion administrazio-organoaren aurrean egiaztatzen denean horiek duten egoera txarra.

Helburu hori izango dute, halaber, etxebizitzak eta lokalak instalazio komunez nahikoa hornituta egoteko egindako obrek. Horien artean hartuko ditugu barne

Las obras precisas para alcanzar la adecuación urbanística se encuentran recogidas en el Anexo II del presente Decreto.

3. Se considera que un edificio posee adecuación estructural cuando presenta condiciones suficientes respecto a la seguridad constructiva, de forma que estén garantizadas la estabilidad, resistencia, firmeza y solidez del edificio.

Se considera que un edificio posee adecuación constructiva cuando, de acuerdo con los principios de la buena construcción, reúne condiciones mínimas respecto de accesos, estanquidad frente a la lluvia y humedad, aislamiento térmico, redes generales de agua, saneamiento, electricidad, seguridad frente a accidentes y siniestros, y, en su caso, redes generales de telefonía e instalación adecuada de ascensor.

Las condiciones generales de los edificios para tener la adecuación estructural y constructiva, y las obras conducentes a tal estado se encuentran recogidas en el Anexo III del presente Decreto y en el artículo 3 de la Ley 38/99 de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación.

4. Se considera que una vivienda reúne condiciones de habitabilidad, cuando se encuentre situada en un edificio que posea adecuación estructural y constructiva y cumpla además dicha vivienda unas condiciones mínimas respecto a superficie útil, distribución interior, ventilación, iluminación natural y aireación, instalaciones de agua y saneamiento, electricidad, aislamiento térmico y acústico, instalación de calefacción o gas natural, servicios higiénicos, e instalaciones básicas de cocina.

Las condiciones de habitabilidad de las viviendas y las obras conducentes a tal estado se encuentran recogidas en el Anexo IV del presente Decreto y en el artículo 3 de la ley 38/99 de 5 de noviembre de Ordenación de la Edificación.

5. Se considera que el acabado general de un edificio y de las viviendas y locales se encuentra adecuado a los principios de la buena construcción cuando, gozando los edificios de adecuación estructural y constructiva y las viviendas de condiciones de habitabilidad, se hayan realizado obras en elementos comunes y privativos destinadas a lograr que su acabado general responda a los citados principios de la buena construcción. Se incluirán en este apartado las obras de acabado general de los elementos comunes de los edificios y también las de los elementos privativos de las viviendas y locales, como raseos, alicatados, solados, carpintería, pintura, u otros, siempre que se acredite ante el órgano administrativo correspondiente el mal estado de los mismos.

También cumplirán este objetivo las obras encaminadas a conseguir que las viviendas y locales gocen de un nivel suficiente de instalaciones comunes tales co-

tximistorratza, ikus-entzunezkoetarako antenak edo gasaren sare orokorren instalazioa, edo etxebizitzak energia aurrezteko egokituta goatea ere.

6. Etxebizitzak edo lokalak minusbaliatuek erabiltzeko egokituta daudela esango dugu etxebizitza horiek eta horietarako sarbideek talde horri dagokionez aplikagarri den legerian adierazitakoa betetzen dutenean. Administrazio-organo eskumendunak, aldeko txosten teknikoaren ostean, baimena eman ahal izango du babes daitekeen aurrekontuan barne hartzeko aipatutako legerian berariaz adierazi ez diren baina etxebizitzaren erabilera edozein minusbaliotasun-motak ezarritako berariazko mugetara egokitzea helburu duten etxebizitzaren edo lokalaren barruko obrak.

4. artikulua.— Birgaitzeko jarduketa babestuak.

1.-Jarduketak birgaitzeko jarduketa babestutzat joko dira horien titularrak Dekretu honetan eta berori garatzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituztenean eta dagokion administrazio-organoak halakotzat jotzen dituztenean, kasuan kasu egoki izan daitezkeen finantza-neurriak eta zerga-onurak lortzea ahalbidetzeko.

2.-Birgaitzeko jarduketak sustatzeko beharrezkotzat jotzen diren neurrien kaltetan izan gabe, lehenik eta behin destino nagusi bezala etxebizitza izango duten erai-kinen birgaikuntza-jarduketetara bideratuko da finantziario kualifikatua.

3.— Higiezin baten elementu komunak birgaitzen diren kasuan, Dekretu hau garatuko duen Aginduak zehazten duen babesteko moduko aurrekontuaren porzentajea zuzenean lortuko du Jabeen Erkidegoak finantza-neurrien bidez. Laguntza hori bateragarria —eta osagarria— izango da eskubide-titular bakoitzari bere diru-sarreraren arabera indibidualki dagokion laguntzarekin.

4.— Lokalak etxebizitza bihurtzeko laguntzetarako berariazko erregimen bat ezarriko da, betiere Dekretu honen IV. Eranskinean adierazitako bizigarritasun-baldintzak betetzen badira.

5. artikulua.— Birgaitzeko jarduketa babestuetako finantza-neurriak.

1.— Indarrean dagoen araudiak aitortutako zerga-onuren kaltetan izan gabe, birgaitzeko jarduketa babestuetarako finantza-neurriak ondoko motetakoak izan daitezke:

a) Finantzaketa kualifikatua, Kreditu Erakundeekin egindako Hitzarmenean finkatzen den interes-tasarekin.

— Kreditu Erakunde zuzeneko maileguak.

— Kreditu Erakunde obra-egiaztagirien banku-deskontuak.

b) Zuzeneko diru-laguntzak:

mo pararrayos, antenas para audiovisuales o de instalaciones de redes generales de gas, o que las viviendas se encuentren adaptadas al ahorro energético.

6. Se considera que las viviendas y locales están adecuados para su utilización por minusválidos cuando éstas y sus accesos cumplan lo establecido en la normativa aplicable a este colectivo. El órgano administrativo competente, previo informe técnico favorable, podrá autorizar la inclusión en el presupuesto protegible de aquellas obras a realizar en el interior de la vivienda que, sin estar expresamente previstas en la citada normativa, tengan por objeto adecuar el uso de la vivienda o local a las limitaciones específicas impuestas por cualquier tipo de minusvalía.

Artículo 4.— Actuaciones protegidas de rehabilitación.

1.— Tendrán la consideración de actuaciones protegidas de rehabilitación aquéllas que, cumpliendo su titular los requisitos establecidos en este Decreto y la normativa de desarrollo, así sean declaradas por el órgano administrativo correspondiente, posibilitando su acceso a las medidas financieras y a los beneficios tributarios que en cada caso procedan.

2.— Sin perjuicio de cuantas medidas se consideren necesarias para el fomento de actuaciones de rehabilitación, la financiación cualificada se destinará preferentemente a las actuaciones de rehabilitación en edificios cuyo destino principal sea el de vivienda.

3.— En los supuestos de rehabilitación de elementos comunes de un inmueble las medidas financieras beneficiarán directamente a la Comunidad de Propietarios en el porcentaje del presupuesto protegible que se determine mediante Orden de desarrollo del presente Decreto. Dicha ayuda será compatible y complementaria de la que corresponda a cada uno de los titulares de derechos de forma individual en función de sus ingresos.

4.— Se establecerá un régimen específico de ayudas para la conversión de locales en viviendas, siempre y cuando se cumplan los requisitos de habitabilidad a los que se refiere el Anexo IV del presente Decreto.

Artículo 5.— Medidas financieras en las actuaciones protegidas de rehabilitación.

1.— Sin perjuicio de los beneficios tributarios reconocidos por la normativa vigente, las medidas financieras para las actuaciones protegidas de rehabilitación podrán adoptar las siguientes formas:

a) Financiación cualificada al tipo de interés que se fije en el correspondiente Convenio con las Entidades de Crédito.

— Prestamos directos de las Entidades de Crédito.

— Descuentos bancarios de certificaciones de obra de las Entidades de Crédito.

b) Ayudas económicas directas:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako diru-laguntzak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak mailegu kualifikatuen interes-tasarako emandako sorospen partziala.

c) Eusko Jaurlearitzak Dekretu bidez ezartzen duen beste edozein, xedapen honetan xedatutakoaren garapena eta burutzapena kontuan hartuta eta, bereziki, berriazko biztanle-taldeei zuzendutako birgaitzeko jarduketari bereiz erantzuteko.

2.– Elementu pribatiboak birgaitzeko laguntzen kasuan, laguntzen onuradunak jasotako kopuruak itzuli beharko ditu (itzultzeko egunean eguneratuak) edozein intervivos tituluren bidez bost urteko epean (obraren azken egiaztapenaren egunetik aurrera kontatzen hasita) laguntzen xede den etxebizitzaren jabetza edo beste edozein eskubide transmitituz gero.

6. artikulua.– Jarduketa-motak.

1.– Finantzaketa kualifikatua zehazteari dagokionez, birgaitzeko jarduketa babestuak birgaitze integratuzat edo birgaitze isolatuzat jo ahal izango dira, jarduketan xede diren higiezinaren kokapenaren arabera.

2.– Birgaitze integratuzat joko dira Birgaitze Integratuko Area bezala deklaraturako hiri-multzoetan eragiten duten jarduketak, Dekretu honetan eta birgaitze-plan berezian adierazitakoari jarraiki. Edonola ere, birgaitzeko jarduketa babestuen finantziario kualifikatuari dagokionez, birgaitze-plan berezian bildutako zehaztasunek Dekretu honetan ezarritakoa izan beharko du te oinarri.

3.– Banakako Birgaitzetzat joko dira birgaitze integratuko areetatik kanpo egiten diren jarduketak.

Halaber, Banakako Birgaitzetzat joko dira ondoren adierazitako jarduketak:

– Area horietan kokatuta dauden baina hirigintza, egitura eta eraikuntzari dagokienez egoki ez dauden, edo bizigarritasun-baldintza guztiak betetzen ez dituzten etxebizitzaren kokaleku diren eraikinetan egindako jarduketak birgaitze isolatuzat joko dira. Dagokion administrazio-organismoak finantziario onartuko du, betiere lurzorua legerian aurreikusitakoaren arabera obrak egiteko agindu bat badenean edo beharrezkoa denean etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak egokitze-ko presako obrak egitea.

– Birgaitze integratuko areetan, arrazoi tipologikoak edo bestelakoak direla eta, birgaitze-plan bereziak birgaitze integratuko finantziariotik bazter utzitako eraikinetan egiten diren jarduketak.

– Subvenciones otorgadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Subsidiación parcial por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco del tipo de interés de los préstamos cualificados.

c) Cualquier otra que pueda establecer el Gobierno Vasco, mediante Decreto, teniendo en cuenta el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en la presente disposición, y en particular para atender de forma diferenciada las actuaciones de rehabilitación destinadas a grupos específicos de población

2.– En los casos de ayuda para rehabilitación de elementos privativos, el beneficiario de las ayudas deberá devolver las cantidades percibidas, actualizadas a la fecha de la devolución, si transmitiera por cualquier título intervivos la propiedad o cualquier otro derecho sobre la vivienda objeto de las ayudas antes de transcurridos cinco años contados desde la fecha de la certificación final de la obra.

Artículo 6.– Tipos de actuaciones.

1.– A efectos de determinación de la financiación cualificada, las actuaciones protegidas de rehabilitación podrán tener la consideración de Rehabilitación Integrada o Rehabilitación Aislada, en función de la ubicación de los inmuebles objeto de las actuaciones.

2.– Tendrán la consideración de Rehabilitación Integrada aquellas actuaciones que se realicen en los conjuntos urbanos declarados Áreas de Rehabilitación Integrada, de conformidad con lo indicado en el presente Decreto y en el Plan Especial de Rehabilitación. En todo caso, las especificaciones recogidas en el Plan Especial de Rehabilitación referentes al acceso a la financiación cualificada de las actuaciones protegidas de rehabilitación deberán fundamentarse en lo establecido en el presente Decreto.

3.– Tendrán la consideración de Rehabilitación Aislada aquellas actuaciones que se realicen fuera de las Áreas de Rehabilitación Integrada.

Asimismo tendrán la consideración de Rehabilitación Aislada las siguientes actuaciones:

– aquellas actuaciones que se realicen en edificios situados en las citadas Áreas, y no se encuentren adecuados urbanística, estructural y constructivamente, o sin que las viviendas reúnan todas las condiciones de habitabilidad, se considerarán como de Rehabilitación Aislada. El órgano administrativo correspondiente reconocerá la financiación siempre que exista una orden de ejecución de obras en los términos previstos en la legislación del suelo o siempre que sea preciso efectuar obras urgentes para la adecuación de las condiciones de habitabilidad de la vivienda.

– aquellas actuaciones que se realicen en Áreas de Rehabilitación Integrada, en edificios excluidos por el Plan Especial de Rehabilitación de la financiación de Rehabilitación Integrada en base a razones tipológicas u otras consideraciones.

Edonola ere, zenbaki honetan barne hartutako jarduketek nahitaezko obretarako udal-baimena izan beharko dute.

7. artikulua.– Birgaitzeko jarduketetako finantza-neurriak eskuratzeko baldintzak.

1.– Etxebizitza izatea erabilera nagusizat duten eraikuntza-unitateen inguruko birgaitzeko jarduketak ondoko baldintzak egiaztatzen direnean bakarrik joko dira jarduketa babestuztat:

a) Birgaitu beharreko eraikinek 10 urte baino gehiago izatea, ondoko kasuetan izan ezik: etxebizitzak minusbaliatuek erabiltzeko egokitzean, eraikinean gas naturala instalatzen denean edota obrak instalazioak indarrean dagoen araudi tekniko berriari egokitzeo beharrezkoak direnean (obrak burutzeko administrazio-agindua izango da).

b) Hirigintzara egokituta ez dauden eraikuntza-unitateen edo egiturari edo eraikuntzari dagokionez egokituta ez dauden eraikinen kasuan, ez dira babestuko aipatutako baldintzak lortzeko beharrezko lanak barne hartzen ez dituzten obrak, arau honen 6.3 artikuluan jasotako kasuetan izan ezik.

c) Hirigintzara egokitzea eta eraikinen egitura eta eraikuntza egokitzea helburu duten birgaitzeko jarduketetan eta etxebizitzek Dekretu honen IV. Eranskinean eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen 3. Artikuluan aipatutako bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztenean, eraikinak bizitzeko egokitzea bermatuko duten antolamendu espaziala eta eraikuntza-ezaugarriak izatea eskatuko da.

Aipatutako bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzaren kokaleku diren eraikinak hirigintzara egokitzeo eta/edo eraikinen egitura eta eraikuntza egokitzeo finantzaketa, nolana ere, bi urteko epean aipatutako baldintza horiek lortzeko beharrezkoak diren obrak egiteko baldintzapean geratuko da.

d) Eraikinak, bertan jarduketak egin ondoren, gutxienez guztizko azalera erabilgarriaren bi heren etxebizitzara destinatuta izatea (behe-oinaren azalera salbuesita). Baldintza hau ez da exijituko birgaitzeko jarduketak hirigintza, egitura eta eraikuntzari dagokienez dagoeneko egokituta dauden eraikinetako etxebizitzaren elementu pribatiboetan egin beharreko esku-hartzeak direnean.

2.– Aurreko zenbakian exijitutako baldintzez gain, Birgaitze Isolatuko jarduketa babestuetan ondokoak ere eskatuko dira:

a) Birgaitu beharreko eraikinak hirigintzara egokitutakoak izatea eta aurreikusitako erabilera edo udal-baimena lortzea eragotziko duen mugarik ez izatea, arau honen 6.3 artikuluan jasotako kasuetan izan ezik.

En todo caso las actuaciones recogidas en el presente número deberán contar con la preceptiva licencia municipal de obras.

Artículo 7.– Condiciones para el acceso a las medidas financieras en las actuaciones de rehabilitación.

1.– Las actuaciones de rehabilitación que se refieran a unidades edificatorias que tengan como uso principal el de vivienda sólo tendrán la consideración de actuaciones protegidas cuando se verifiquen las siguientes condiciones:

a) Que los edificios a rehabilitar tengan una antigüedad superior a diez años, excepto cuando se trate de adaptación de las viviendas para uso de personas minusválidas, cuando se trate de la instalación de gas natural en el edificio o cuando las obras sean necesarias para adaptar las instalaciones a la normativa técnica aplicable vigente, existiendo orden administrativa de ejecución de obras.

b) En las unidades edificatorias que no se encuentren adecuadas urbanísticamente o en los edificios que no se encuentren adecuados estructural o constructivamente, no se protegerá la realización de obras que no incluyan las necesarias para la consecución de las citadas condiciones, excepto en aquellos supuestos recogidos en el artículo 6.3 de la presente norma.

c) En aquellas actuaciones de rehabilitación que tengan por objeto la adecuación urbanística, o la adecuación estructural y constructiva de los edificios, y las viviendas no reúnan las condiciones de habitabilidad a que se refiere el Anexo IV de este Decreto, y el artículo 3 de la Ley de Ordenación de la Edificación, se exigirá que el edificio posea una organización espacial y unas características constructivas que garanticen la posibilidad de alcanzar dicha adecuación de habitabilidad.

En todo caso la financiación para la adecuación urbanística y/o para la adecuación estructural y constructiva de los edificios donde se ubiquen viviendas que no reúnan las condiciones de habitabilidad citadas, estará condicionada a que en el plazo de dos años se acometan las obras necesarias para alcanzar las citadas condiciones.

d) Que el edificio, efectuadas las actuaciones sobre el mismo, disponga de un mínimo de dos terceras partes de la superficie útil total destinada a vivienda, quedando excluida de este cómputo la superficie de la planta baja. Este requisito no será exigible cuando las actuaciones de rehabilitación consistan en intervenciones en elementos privativos de las viviendas en edificios ya adecuados urbanística, estructural y constructivamente.

2.– Además de los requisitos exigidos en el número anterior para las actuaciones protegidas en Rehabilitación Aislada se exigirá:

a) Que los edificios a rehabilitar se encuentren adecuados urbanísticamente, y sin limitaciones que impidan el uso previsto o la obtención de licencia municipal, excepto en aquellos supuestos recogidos en el artículo 6.3 de la presente norma.

b) Eraikina aurri-egoeran edo partzialki erautsita ez egotea, barnealdea hustuta ez izatea edo jarduketek ftxaden eraispena edo erabateko hustuketa barne hartzea.

Dena dela, ondoren zehaztuko diren etxebizitzetan hustuketa-obrak barne hartzen dituzten birgaitzeko jarduketan titularrek arau honetan ezarritako mailegu kualifikatuak eta, hala badagokie, interes-tasen sorospena eskuratu ahal izango dituzte:

– landa-areako eraikuntza tradizionalari erantzuten dion eraikuntza-tipologia duten landa-inguruneko etxebizitzetan.

– nekazaritza-izaera edo landa-izaera izan duten edo gremioei lotutako herri-arkitekturako tipologia duten eraikuntza tradizionalako etxebizitzetan.

c) Eraikuntza berriko obren bidez bizitzeko egoki den etxebizitzaren espazioa zabaltzeko esku-hartzeek aginduzko udal-baimena izatea eta horiek egin ostean lortuko diren etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak betetzea.

Esku-hartze horiek, emaitza gisa, gehienez ere 90 m²-ko guztizko azalera erabilgarria edo eraiki ziren unean etxebizitza horiek izan zuten babes ofizialeko erregimenak ezarritako gehieneko azalera ematea exijituko da, ondoko kasuetan izan ezik:

– landa-areako eraikuntza tradizionalari erantzuten dion eraikuntza-tipologia duten eraikinen kasuan.

– nekazaritza-izaera edo landa-izaera izan duten edo gremioei lotutako herri-arkitekturako tipologia duten eraikuntza tradizionalako eraikinen kasuan.

Terrazak ixteko jarduketak ez dira babes daitezkeen birgaitzeko jarduketatzat hartuko.

3.– Halaber, birgaitzeko jarduketa babestuen multzoak jarduketa bakoitzari dagokionez Dekretu honek xedatzen duena eta, hala badagokio, Birgaitze Plan Berezian eta indarrean dagoen legeria aplikagarrian erabakitakoa bete beharko du. Kasu guztietan beharrezkoa izango da obretarako dagokion udal-baimena lortzea.

8. artikulua.– Birgaitzeko jarduketa babestuen titularrak.

1.– Birgaitzeko jarduketa babestuak birgaitu beharreko higiezin jabe, errentari edo gozamen-diren edo horien inguruko beste edozein gozamen-titulu duten pertsona fisiko edo juridikoek, pribatu nahiz publikoek, egin ahal izango dituzte. Horiek birgaitzearen titular bihurtuko dira izapideei eta arau honetan ezarritako finantzaketa kualifikatua eskuratzeko aukerari dagokienez.

Elementu komunetan egin beharreko esku-hartzeak direnean, laguntzen izapideak Jabeen Erkidegoaren ordezkariak egin beharko ditu, Jabetza Horizontalari buruzko Legeak ezarritako baldintzetan.

b) Que el edificio no se encuentre en estado de ruina demolido parcialmente o vaciado en su interior, o que las actuaciones incluyan la demolición de fachadas o su vaciado total.

No obstante, los titulares de actuaciones de rehabilitación que conlleven obras de vaciado en las viviendas que a continuación se detallan, podrán acceder a los prestamos cualificados, y en su caso, a la subsidiación de los tipos de interés establecidos en esta norma:

– viviendas sitas en el medio rural cuya tipología constructiva responda a la edificación tradicional del área rural.

– viviendas de construcción tradicional, cuyo origen haya sido de carácter agrícola o rural, o que correspondan a tipologías arquitectónicas populares de carácter gremial.

c) Que las intervenciones de ampliación del espacio habitable de la vivienda mediante obras de nueva construcción cuenten con la preceptiva licencia municipal, y las viviendas resultantes tras la realización de las mismas cumplan con las condiciones de habitabilidad.

Se exigirá que den como resultado una superficie útil total de la vivienda que no exceda de 90 m², o de la superficie máxima establecida en el régimen de protección oficial al que se acogieron las viviendas en el momento de su construcción, a excepción de:

– edificios sitos en el medio rural cuya tipología constructiva responda a la edificación tradicional.

– edificios de construcción tradicional, cuyo origen haya sido de carácter agrícola o rural o que correspondan a tipologías arquitectónicas populares de carácter gremial.

El cerramiento de terrazas no se considerará actuación protegible de rehabilitación.

3.– Asimismo, el conjunto de las actuaciones protegidas de rehabilitación deberá verificar las especificaciones que para cada actuación recoja el presente Decreto y lo estipulado, en su caso en el Plan Especial de Rehabilitación y en la normativa aplicable vigente. En todos los casos, deberán contar con la correspondiente licencia municipal de obras.

Artículo 8.– Titulares de las actuaciones protegidas de rehabilitación.

1.– Las actuaciones protegidas de rehabilitación podrán ser realizadas por personas físicas o jurídicas, privadas o públicas, que ostenten la condición de propietario, arrendatario, usufructuario, o cualquier otro título de disfrute sobre los bienes inmuebles a rehabilitar, constituyéndose, a los efectos de tramitación y acceso a la financiación cualificada establecida en esta norma, en titulares de la rehabilitación.

Cuando se trate de intervenciones en elementos comunes la tramitación de las ayudas deberá efectuarse por quien representante a la Comunidad de Propietarios en los términos establecidos por la Ley sobre Propiedad Horizontal.

2.– Birgaitzeko jarduketetako titularra jabea ez de-
nean, ezinbestekoa izango da jabearen baimena eta bir-
gaitzeko obren kostuen ordainketaren inguruko eraba-
kia aurkeztea.

II. KAPITULUA

BIRGAITZE INTEGRATUKO AREEN ETA AREA DEGRADATUEN ERREGIMEN JURIDIKOA

9. artikulua.– Birgaitze integratuko areen defini-
zioa.

1.– Birgaitze integratuko areatzat jo ahal izango di-
tugu beren ezaugarri arkitektoniko edo hirigintzakoen
balio nabarmena edo ondare urbanizatu edo eraikiaren
degradazio-egoera direla eta babestera, zaintzera edo ho-
betzera bideratutako administrazioaren ekintza bereziak
behar dituzten hiri- edo landa-multzoak.

2.– Era berean, birgaitze integratuko area deklaratu
ahal izango dira beren ezaugarri arkitektoniko eta
hirigintzakoak balio nabarmenekoak ez izan arren on-
dare urbanizatu eta eraikiaren degradazio-egoera dela
eta hala eskatzen duten orain gutxi sortutako egoitzar-
ako hiri-multzoak, area degradatutzat jo daitezkeenak.

Dekretu honen ondorioetarako area degradatutzat
hartuko dira ekonomia, gizarte, hirigintza eta arkitek-
turaren alderdiei dagokienez ondorengo degradazio-
egoeran daudenak:

a) Areako biztanleen errenta-mailek Euskal Autono-
mia Erkidegoko dagokion Lurralde Historikoaren ba-
tez besteko errentaren %80tik beherakoak izan behar-
ko dute. Paragrafo honen hurrengo letretan ezarritako
portzentajeen %30tik gorako arkitektura edo hirigin-
tza degradazioa dagoen kasuetan, portzentajea %85era
igoko da.

b) Areako biztanleriaren langabezia-mailak Euskal
Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino handia-
goa izatea.

c) Berriz urbanizatzeko obren zenbatekoak urbani-
zazioaren balioaren %40 gaitzea.

d) Egiturari eta eraikuntzari dagokienez egoki iza-
teko eta Dekretu honetako IV. eranskinean ezarritako
guxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzeko birgai-
tzeko obren zenbatekoak eraikuntzaren balioaren %25
gaitzea, luraren balioa kenduta.

3.– Multzoak eraikuntza bakarreko eraikuntza-uni-
tatea, eraikuntza-konplexua duen eraikuntza-unitate
bat edo batzuk edo hiri- edo landa-area zabalagoa bar-
ne har ditzake.

2.– En aquellas actuaciones de rehabilitación cuyo
titular no sea el propietario, será precisa la presentación
de la autorización de la persona propietaria, así como
el acuerdo sobre quién costeará las obras de rehabilita-
ción.

CAPÍTULO II

RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS ÁREAS DE REHABILITACIÓN INTEGRADA Y ÁREAS DEGRADADAS

Artículo 9.– Definición de las Áreas de Rehabilita-
ción Integrada.

1.– Podrán ser declaradas Áreas de Rehabilitación
Integrada aquellos conjuntos urbanos o rurales que por
el notorio valor de sus caracteres arquitectónicos o ur-
banísticos así como por las condiciones de degradación
de su patrimonio urbanizado y edificado deban ser so-
metidos a una acción especial de la Administración ten-
dente a su protección, conservación o mejora.

2.– Igualmente podrán ser declaradas Áreas de Re-
habilitación Integrada los conjuntos urbanos residen-
ciales de reciente creación en los que, aun no siendo de
notorio valor sus caracteres arquitectónicos o urbanís-
ticos, así lo aconseje el estado de degradación de su pa-
trimonio urbanizado o edificado, que pudieran tener la
